# ZER JOKO DEN ALDAKETA HANDITZAT

**(809/2021 Errege Dekretuaren 8. artikuluaren arabera)**

**Presio-ekipo bat aldatzean:** aldaketa handitzat hartuko dira honako hauek aldatzen dituztenak:

- Jatorrizko prestazioak: gehienezko presio onargarriaren (PS) balioa handitzea; tenperatura aldatzea eta horrek materialean eragin ahal izatea; bolumena aldatzea; edo arrisku handiagoko fluido bat erabiltzea.
- Jatorrizko funtzioa edo mota: ontzia edo hoditeria.
- Aldaketa fisikoak, edozein osagaitan: diseinuan inplikazioak dituztenak edo ekipoaren euste-gaitasunari eragiten diotenak, jatorrizko diseinu-datuen arabera.

**Instalazioak aldatzean:** aldaketa handitzat hartuko dira honako hauek aldatzen dituztenak:

- Funtzio nagusia.
- Zeukan fluidoaren ordez arrisku handiagoko beste bat jartzea.
- Tenperatura aldatzea eta horrek materialean eragin ahal izatea.
- Zeuden segurtasun-elementuen ordez ezaugarri desberdinak dituzten beste batzuk jartzea.